

# Bixente Barandiaran, bertsozik gabe ezin bizi

Iragan astean, urriaren 1ean, zendu zen Bixente Barandiaran bertsolaria. Itsasondon jaio bazen ere, Altzako Garbera baserrian bizi izan zen gazte-gaztetandik. Hantxe berpiztu zen bere bertsolari sena. Plazetan baino areago, baina, lagunartean atsegin zuen bertsoan egitea; sasoi zaharreko bertsolari handiek bezalaxe.

Iñaki Lazkano

Itsasondoko Urkia bailaran jaio zen arren, Altzako Garbera baserrian bizi izan izan zen gaztetatik Bixente Barandiaran bertsolaria; Joan Mari Irigoienek nostalgiaz irudikatu ohi duen Altxa idiliko hartan. Altxara iritsi zenean, hogeai baserri baino ez zeuden herri inguruan. Apaiza eta irakaslea salbu, kaletarrik ez. Baserria erosi ostean, garai latzak bizi izan zituen. Gogor egin behar izan zuen lan-eta zorrak kitatzeko. Hala aitortu ohi zuen Bi-

xentek: "Zorra lagun txarra da gizonarentzat. Ni estutuarazi ninduen, eta bertsoa lagarazi urte batzutan".

Apurka-apurka, ordea, Bixente Barandiaranen bertsolari sena berpiztuz joan zen. Baina plazaz plaza bertsoan aritu ordez, lagunartean gozatu zuen, nagusiki, bat-bateko bertsolaritzarekin. Bertsozale fina eta bertsolari herrikoia izan zen beti Bixente Barandiaran. Bere belaualdiko bertsolari handienekin ere kantuan ibilitakoa da, baina. Uztapide, Txirrita, Salaberria eta beste bertsolari "galaktiko"-ekin, alegia.

Azken urteotan, idazle ere aritu zitzaiz-

**IRUTXULO**ren 8. zenbakian elkarriketatu genuen Bixente Barandiaran. Bertso polit hauek eskaini zizkion elkarrizketa egin zion kazetariari eta aldizkari berari

## Nere lagun bati

Iru edo lau berso  
nari nituzke jarr  
jendeak jakin dezaten  
zer bait here berri  
neska gazte bat atzo  
zitzaidan etorn  
bere bisita izan zan  
neretzat pozgarri

Errebista argitaratu  
nahi dute astero  
errez egin litezke  
salatu ezker o  
lagunka taltatzenik  
nik ez det espero  
on ondo ikusita  
dago onuzker o

Ikusi nuan berekin  
zer desero zuan  
Iru txulo goratu nahi  
intertzio osuan  
galderak egiten zizkidan  
irripar gosuan  
ondo erantzutera  
ark merezi zuan

Nere eginkizun au  
ondo nari det bete  
geiago egitea ere  
salatu liteke  
euskarari laguntzea  
nola ez dun kalte  
noiz nari deitu zazute  
beartzen bazerate

## Maiteari eskainitako bi bertso

Ezagun egin oinar  
Urkitxo partean  
biok urte gutxiakin  
gazteak artean  
Lagunak ontzen dira  
kanoira joatean  
Maritxu baino ohenik  
ez dakit ote an

Mesede bat eskatu  
nari ditzunik arren  
ez pentsa nabillenk  
intertzio txarren  
Zurekin nago berri  
itzegin bearren  
egun batean bilduz  
biok bulebarran



Bixente Barandiaran eta Uztapide

gun. Auspoa argialetxearekin bi liburu kaleratu zituen: "Zartu gabe ezin bizi" (1990) eta "Lanik gabe ezin bizi" (1995). Sendoa argialetxearekin "Tratabideak" (1999) liburua eman zuen argitara.

Urriaren lehenean utzi gintuen Bixente Barandiaranek. Altxan hil zen, 86 urte zituela. Ziurrenik, Amurizaren bertso gogoangarri hartan bezalaxe, azken bertsoa gure negarrari eskainiko zion agurraren aurretik. Lanik egin gabe ezin zuela bizi idatzi zuen. Bertsozik bota gabe, zer esanik ez.



Bixente Barandiaran

## Garbera baserria, Bixenteren bizilekua

Donosti'ko Altxa'n baserritxo bat orduan nuan erosi, esposatu ta biok lanean gogotsu giñaden asi. Familia're sortu zan eta aiek bihar ziran azi, antxe ordurik gozoenak oieri begira kasi.

